

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 40 milioi € inbertituko du datozen bi urteotan ehun udalerrri baino gehiagotako azpiegitura-obretan

Kopuru hori duen gastua onartu du Toki Azpiegituren Planean dauden inbertsioak bermatzeko

Miércoles, 12 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak 40 milioi euroko gastu-konpromisoa baimentzea erabaki du [Toki Inbertsioen Plan](#)ean 2014 eta 2015 ekitaldien aurrekontuetarako (20 milioi urte bakoitzean) planean dauden inbertsioak bermatzeko, ehun udalerrri baino gehiagotan aurreikusita daudenak.



Araztegia.

Horrenbestez, Landa Garpen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko kontseilari José Javier Esparzak aipatu du, bere aldetik, Foru Gobernuak toki-erakundeei bermatzen diela Toki Azpiegituren Plan horretan onartu eta barneratutako inbertsio guztiak egingo direla. Nolanahi ere, toki-erakundeei Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren Lege Organikoak egindako eskaerak bete beharko dituzte.

Gainera, Esparzak adierazi du Nafarroako Gobernuak gaur onartutako erabakiari esker, toki-erakundeei obrak egikaritzeko plangintza egin dezaketela eta Gobernuaren laguntza ziurtatzen duela zerbitzuak eskaintzeko beharrezko obrak egiten jarraitu ahal dezaten. Horri gehitu behar zaio, zer eragin izango duen jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeko orduan.

Gogoratu behar da martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legearen bidez, 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren indarraldia luzatu zela Plan berri bat onartu artean, gastu-konpromisoak eta obra-baimenak eskuratu ahal izateko Inbertsio Planean dauden jarduketan zerrenda osatzeko asmoz, bai eta aitortutako premiazko eta larrialdiko prozedura bidez sartzen direnak ere.

Toki Inbertsioen Planaren indarraldiaren zabalkunde horrek ekitaldi bakoitzari aplikatu daitezkeen diru-hornidura eskatzen du, aurretiazko izaeraz inbertsioak baimendu ahal izateko, eta inbertsio horiek 2014 eta 2015ean egikaritu eta ordainduko dira.

Horretarako, 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren diruzaintzako soberakina erabiliko da, hots, kapital-transferentzietarako Nafarroako zergetan toki-erakundeen partaidetzako funtsaren kopuruak eta aurreko ekitaldietan erabili gabe geratu zirenak.